

Eskua altxatu zutenekoak

Portugalen harrapatu nau zutabe hau idatzi beharrak. Portugalgo kostaldean zehatzago esanda, Peniche herrian. Herria penintsula txiki batean dago kokatuta, eta arroila ikaragarri politak daude zona honetan. Horiek ikusteko leku aproposarenaren bila, azkenean, herriaren sarrean dagoen aparkalekuan utzi dugu autoa. Herria ezagutzeko paseo bat eman, eta arroilaraino iritsiko ginela pentsatu dugu.

Ez da hala izan. Ez ditugu arroilak aurkitu; bai, ordea, askoz interesgarriagoa izan den eraikin zaharberritu bat: Penicheko gotorlekua. Antza, garai batean herria ez zen gaur egun

dena, eta irlatxo bat zuen ondoran. Irla hori penintsulari lotuz joan zen denborarekin, eta giza-kiak berehala aprobetxatu zuen hori hantxe eraikitzeko. Gaztelu bat izan zen lehenik, gobernadorearen etxea, 1836aren inguruan.

Lehenengo Mundu Gerraren garaian kartzela izan zen. Alemaniarrak eta austriarrak atxiki zituzten barruan. 1930az geroztik, 1974ra arte, Portugalgo Estatu Berria bitartean, Oliveira Salazar diktadoreak hasitako eta Marcello Caetanok jarraitutako agintaldi autoritarioan, segurtasun handiko espetxe politikoa izan da. Egun, ordea, erresistentzia antifaxistaren museo bilakatu dute.

Zer zen ongi jakin gabe sartu



HURBILDU ETA LAU
Lohizune Amatria

Nahigabeen Iruñea
etorri zait gogora.
Iruñea eta Ezkabako
gotorlekua. Ihesa.
Hildakoak.
Fusilatuak



ginen gotorlekuan. Presoek familiakoekin hitz egin ahal izateko gelaxkak bisitatu ditugu. Baita *sekreto* izeneko bakartze zelda txikia ere. Antonio Dias Lourenço komunista eduki zuten han, esaterako, 1954an. Atean zulo txiki bat eginez alde egitea lortu zuen. Hogei metroko hormatik zintzilikatu zen, zapi batzuekin egindako soka bat baliatuta. Apurtu, eta itsasora jauzi zen. Arrantzale zenbaiten laguntzaz lortu zuen ihes egitea. 1960an, berriz, *Penicheko ihesa* gertatu zen. Hamar bat komunistak egin zuten ihes, tartean Portugalgo Alderdi Komunista-ko idazkari nagusiak.

Gertakariei buruz irakurtzen ari ginela, nahigabeen Iruñea etorri zait gogora. Iruñea eta Ezkabako gotorlekua. Ihesa. Hildakoak. Fusilatuak. Elkarte eta senideengatik izan ez balitz, ezer gutxi jakingo genukeen gertatutakoaz.

Aitonaren anaia ere badut go-goan. Ezkaban eduki zuten. Gali-ziara eraman zuten ondoren. Camposancos kontzentrazio es-parrutik idatzi zituen azken es-kutitzak. Han ere izan naiz. Ez zen erreza izan eraikina aurki-tzea. Ez dago plakarik, ez infor-maziorik. A Guardako biztanleei galdetu behar izan genien. Harri-tu egin ziren.

Landarediak jan egin du Jesui-ten eskola izandako eraikina. 90eko hamarkadan egin zuten azken erreforma, baina kresalak nabarmenki kaltetu ditu hor-mak.

Krabelinen Iraultzaren ondo-tik askatu zuten Penicheko gotorlekua, 1974an. Sei urte geroago bilakatu zuten museo. 1945ean itxi zuten Ezkabakoa, eta frankismoa amaitu zela 44 urte dira. Itxita jarraitzen du.

Espainiako estatuak memoria-rako baino, desmemoria elika-tzeko ditu gordeak.

Irudia • Iruñea



Gutxienez hiru gorpuzki dituen hobia aurkitu du Aranzadi zientzia elkarteak

ETXALATZ • Aranzadi zientzia elkarteak kideek 1936ko gerran fusila-tutako hiru pertsonaren arrastoak aurkitu ditu hobi batean. Etxala-tzen. Hainbat lekukok emandako datuei esker aurkitu dute hobia. In-dusketak egiten hasi, eta, Nafarroako Gobernuak ezagutarazi duenez, hiru gorpuzki aurkitu dituzte jada. Ez dute baztertzen gehiago izatea. Etxalatzen sei gorpu zituen bertze hobi bat aurkitu zuten Aranzadiko kideek, 2018. urtean.

%81,7

C HEPATITISA IZAN DUTEN ERIETATIK ZENBAT OSATU DIREN

Hepatitisaren Nazioarteko Eguna izan zen igandea. Nafarroako Ospitale Guneak «ontzat» jo ditu gaixotasun horren aurkako planaren emaitzak: Nafarroan, C hepatitisaren izan duten gaixoen %81,7k gainditu dute gaitza. Gobernuak 25 milioi euroren inbertsioa egin du eritasun horren aurka.



«Hamabi urte ditugu gauzak aldatu eta klima aldaketaren eraginak gibelera bueltarik gabeak ez izateko, NBEk iaz egindako ikerketaren arabera»

Lorea Flores Compains
Greenpeaceko Hego Euskal Herriko koordinatzailea

Elkarretaratzea egin dute herritarrek, bestetan jazotako sexu erasoak salatze

TUTERA • Gutxienez sexu eraso bat gertatu da Tuterako bestetan, hiri horretako Foruzaingoak jasotako salaketaren arabera. Eraso matxista uztailaren 25ean jazo zen. Gertatutakoa salatze, Tuterako emaku-meek elkarretaratzera deitu zuten joan den ostiralean, eta Foruen pla-zan egin zuten bat. Tuterako Udalak ere erasoak salatze adierazpena onartu du. Herritarrek antolatutako elkarretaratzean, hala ere, Ezke-rreko hainbat zinegotzi baino ez ziren izan. Udal gobernuak kideek ez zuten parte hartu, ezta PSNko zinegotziek ere.

Eraso egin diote Salazarren eskulturari

Elkarretaratzea egin zuten larunbatean, 78ko Sanferminak Gogoan plataformak deituta, Orreaga karrikako Dora Salazarren Gogoan eskulturari egindako erasoak salatze. Plataformak joan den ostiralean ezagutarazi zuten eskulturako plaka kendu zutela. Iazko ekainean jarri zuten lan hori Iruñean, 1978ko sanferminetan gertatu-takoa gogoratzeko: Espainiako Polizia Armatuak German Rodriguez tiroz hil zuen. Salazarren lanak hiri osoa omendu nahi izan du, Iruñe osoak jaso zuelako erasoak. Gobernuak gertatutakoa gaitzetsi du. IDOIA ZABALETA / FOKU